



Urnieta
udala

Espte zk nº expte:
2023ITGB0012

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILKURAREN AKTA	ACTA DE LA SESION DE JUNTA DE GOBIERNO LOCAL
---	---

Bilera-mota: ohiko

Bilera-data: 2023ko azaroaren 17a

Ordua: 8:00-8:20

Deialdia: Lehenengoa

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

Akta onartu den bileraren data:

Tipo de sesión: ordinaria

Fecha de la sesión: 17 de noviembre de 2023

Hora: 8:00 -8:20 horas

Convocatoria: Primera

Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento

Fecha de la sesión de aprobación del acta:

Bertaratutakoak:

Alkatea

Jorge Segurado Iriondo (EAJ-PNV)

Zinegotziak

Agurtzane Mercader Ubillos (EAJ-PNV)

Ana Pozas Rodríguez (EAJ-PNV)

Eukeni Garmendia Martínez (EH Bildu)

Hermenegildo González Morán (PSE-EE)

Idazkaria

Idoia Arévalo Benito

Beharrezko quoruma gaindituta, eta Alkateak bilkurari hasiera emanda, gai-zerrendako puntuak aztertzeari ekin zaio.

Asistentes:

Alcalde

Jorge Segurado Iriondo (EAJ-PNV)

Concejales

Agurtzane Mercader Ubillos (EAJ-PNV)

Ana Pozas Rodríguez (EAJ-PNV)

Eukeni Garmendia Martínez (EH Bildu)

Hermenegildo González Morán (PSE-EE)

Secretaria:

Idoia Arévalo Benito

Superado el quórum necesario y abierta la sesión por el Alcalde, se procede al análisis de los puntos del orden del día.

Gai-zerrenda:

- 2023ko azaroaren 3ko aktaren onarpena.
- Tokiko Gobernu Batzarrak bere gain hartutako eskumena bereganatzeko 1179. Dekretuaren berri ematea.
- Hezkidetzako programak txertatzeko EGAPE HLHIrekin sinatutako hitzarmenaren aldaketa onartzea. (2022SHIT0015)
- Hezkidetzako programak txertatzeko

Orden del día:

- Aprobación del acta del 3 de noviembre de 2023.
- Dar cuenta del Decreto nº 1179 de avocación de la competencia asumida por la Junta de Gobierno Local.
- Aprobar la modificación de convenio firmado con el CEIP EGAPE para incorporar los programas de coeducación (2022SHIT0015).
- Aprobar la modificación de convenio

ESKUB4aa9f59-ae1e-432e-aa03-4b6d63982d20



Urnietako
udala

Espte zk nº expte:
2023ITGB0012

EGAPE BHI-rekin sinatutako
hitzarmenaren aldaketa onartzea
(2022SHIT0014)

firmado con el IES EGAPE para
incorporar los programas de
coeducación. (2022SHIT0014).

5. Hezkidetzako programak txertatzeko
SALESTARRAK MAGALEekin
sinatutako hitzarmenaren aldaketa
onartzea (2022SHIT0016).

5. Aprobar la modificación de convenio
firmado con SALESTARRAK MAGALE
para incorporar los programas de
coeducación (2022SHIT0016).

6. Etxeberrri auzo elkartearekin sinatutako
hitzarmenaren aldaketa onartzea
(2021SHIT0003).

6. Aprobar la modificación de convenio
firmado con Etxeberrri auzo elkarte
(2021SHIT0003).

7. Antia 2024 literatur lehiaketaren
oinarriak onartzea (2023SORO0028).

7. Aprobar las bases del concurso literario
Antia 2024 (2023SORO0028).

8. Aisialdiko begiraleentzako dirulaguntzak
onartzea. (2023SOKO0008)

8. Aprobar las subvenciones a
monitoras/es de tiempo libre
(2023SOKO0008).

9. Urnietako udal hilerriko lurperatze,
mantentze, garbiketa eta lorezaintza
zerbitzu orokorraren kontratazioaren
esleipena (2023ZZER0008)

9. Adjudicación del servicio general de
enterramiento, mantenimiento, limpieza
y jardinería del cementerio municipal de
Urnietako (2023ZZER0008)

10. Bestelakoak

10. Otros.

Gai-zerrendako gaien azterketa:

Examen de los asuntos incluidos en el orden del día:

1.- 2023ko azaroaren 3ko aktaren onarpena.

1.- Aprobación del acta del 3 de noviembre de 2023.

2023ko azaroaren 3ko akta onartzen da aho batez.

El acta del 3 de noviembre de 2023 se ha aprobado por unanimidad.

2.-1179 zenbakidun abokazio Dekretuaren berri ematea.

2.-Dar cuenta del Decreto de abocación nº 1179.

Berri eman da.

Se da cuenta.

3.- Hezkidetzako programak txertatzeko EGAPE HLHlrekin sinatutako hitzarmenaren aldaketa onartzea. (2022SHIT0015)

3.- Aprobar la modificación de convenio firmado con el CEIP EGAPE para incorporar los programas de coeducación

ESKUB4aa9f59-ae1e-432e-aa03-4b6d63982d20



Urnietako
udala

Espte zk nº expte:
2023ITGB0012

Hitzarmenaren aldaketaren xedea

Aldaketa honen xedea da Urnietako Udalak eta EGAPE IKASTOLA HLHI-k 2022ko abenduaren 7an sinatutako hitzarmenean, eranskin bat sartzea, ikastetxe horretan egiten diren sexuen hezkuntza, hezkidetzeta eta tratu onen programak diruz laguntzeko.

Aurrekariak

EGAPE IKASTOLA HLHI-ren helburua da, familiekin lankidetzan, ikasleei hezkuntza integrala ematea, bai esparru pertsonalean, bai akademikoan eta sozialean, aldatzen ari den gizarterako eta bizitzarako prestatzeko, neska eta mutil euskaldun, eleanitz, kritiko, parekide, enpatiko, solidario izan daitezen.

Urnietako Udalak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuen 2022ko abenduaren 7an EGAPE IKASTOLA HLHI-rekin (2022SHIT0015), euskara sustatzeko, mendekotasunak prebenitzeko eta bakearekin eta bizikidetzarekin lotutako programak diruz laguntzeko.

EGAPE IKASTOLA HLHI-k 2023ko irailaren 18an erregistratu zuen hezkidetzeta, sexuen hezkuntza eta tratu onak sustatzeko lankidetzeta eskaera.

Programaren bidez, prestakuntza eta aholkularitza emango zaie ikastetxeko estamentu guztiei.

Laguntza hori emateko baldintzak ezarri behar dira.

Aurretik azaldutakoak indarrean dagoen hitzarmena aldatzea eskatzen duela.

Zuzenbideko oinarriak

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik Gabe Bizitzeko EAEko 4/2005 Legearen testu bateginak euskal administrazio publikoei esleitzen die emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko

(2022SHIT0015).

Objeto del modificación de convenio

El objeto de esta modificación es incluir en el convenio firmado el 7 de diciembre de 2022 entre el Ayuntamiento de Urnieta y el CEIP EGAPE IKASTOLA un anexo para financiar los programas de educación de los sexos, coeducación y buenos tratos que se realizan en dicho centro.

Antecedentes

La finalidad del CEIP EGAPE IKASTOLA es proporcionar al alumnado, en colaboración con las familias, una educación integral, tanto en el ámbito personal como académico y social, con miras a prepararse para vivir en una sociedad y una vida cambiantes, en la que chicas y chicos sean euskaldunes, plurilingües, tengan actitud crítica, paritaria, empática y solidaria.

El Ayuntamiento de Urnieta firmó el 7 de diciembre de 2022 un convenio de colaboración con el CEIP EGAPE IKASTOLA (2022SHIT0015) para apoyar económicamente programas de fomento del euskara, prevención de dependencias y relacionados con la paz y la convivencia.

El CEIP EGAPE IKASTOLA registró el 18 de septiembre de 2023 una solicitud de colaboración para promover la coeducación, la educación de los sexos y los buenos tratos.

Mediante el programa se impartirá formación y asesoramiento a todos los estamentos del centro educativo.

Para conceder dicha ayuda es necesario establecer las condiciones de la misma.

Lo expuesto previamente requiere la modificación del convenio en vigor.

Fundamentos de derecho

Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres de la CAE atribuye a las administraciones públicas vascas el deber de promover y aplicar de manera efectiva todas las

ESKUB4aa9F59-ae1e-432e-aa03-4b6d63982d20



Urnieta
udala

Espte zk nº expte:
2023ITGB0012

beharrezkoak diren neurri guztiak sustatu eta eraginkortasunez aplikatzea eta zehazki, hezkuntzaren eta hezkidetzaren sustapenaren arloari dagozkionak.

Urnietako Berdintasunerako III. Planak, IV. ardatzean, indarkeria matxistarekin amaitzeko baliabideak eta estrategiak indartu eta hobetu nahi ditu, partikularki prebentzioaren, arretaren eta berreskuratze- eta konpontze-prozesuen eremuetan.

Azaroaren 8ko 9/2017 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 6.2 artikulua bere aplikazio eremutik kanpo uzten ditu "sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoekin egindako hitzarmenak, betiere horien helburua ez bada jasotzen Lege honetan edo arau administratibo berezietan araututako kontratuetan".

Horrenbestez, ikusirik 2023ko azaroaren 9ko Herritargoko Batzorde Informatzaileak egindako aldeko irizpena, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez ondorengoa

ERABAKI DU

1. EGAPE IKASTOLA HLHI-rekin sinatu beharreko hitzarmenaren aldaketa proposamena onartzea (I eranskina).
 2. Alkate jaunari baimena ematea hitzarmen horren aldaketa sinatzeko.
 3. 3.385 euroko diru laguntza ematea 1 0440.481.326.00.05 2023 (2764) aurrekontu partidaren kargura, hitzarmenean zehaztutako moduan ordainduko dela adieraziz.
 4. EGAPE IKASTOLA HLHI-ri erabakia jakinaraztea eta sustapen eta kontu-hartzailetza sailei helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.
- 4.- Hezkidetzako programak txertatzeko EGAPE BHI-rekin sinatutako hitzarmenaren aldaketa onartzea (2022SHIT0014)**

Hitzarmenaren aldaketaren xedea

medidas necesarias para la prevención de la violencia machista contra las mujeres, y en particular, las referidas al ámbito de la educación y al fomento de la coeducación.

El III Plan para la Igualdad de Urnieta, en su IV. eje de intervención, persigue reforzar y mejorar los recursos y estrategias para acabar con la violencia machista específicamente en los ámbitos de prevención, atención, y los procesos de recuperación y reparación.

El artículo 6.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, excluye del ámbito de aplicación de la misma a "los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales".

Por todo ello, y visto el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Ciudadanía del 9 de noviembre de 2023, la Junta de Gobierno Local ha adoptado por unanimidad el siguiente

ACUERDO

1. Aprobar la propuesta de modificación de convenio a suscribir con el CEIP EGAPE IKASTOLA (anexo I).
 2. Autorizar al Sr. Alcalde para la firma de dicho modificación de convenio.
 3. Aprobar la concesión de una subvención de 3.385 euros con cargo a la partida presupuestaria 1 0440.481.326.00.05 2023 (2764), indicando que el pago de la misma se realizará en virtud de lo establecido en el convenio.
 4. Notificar este acuerdo al CEIP EGAPE IKASTOLA y trasladar el mismo a los departamentos de promoción e intervención a los efectos oportunos.
- 4.- Aprobar la modificación de convenio firmado con el IES EGAPE para incorporar los programas de coeducación. (2022SHIT0014).**

Objeto del modificación de convenio

ESKUB4aa9f59-ae1e-432e-aa03-4b6d63982d20



Urnietako
udala

Espte zk nº expte:
2023ITGB0012

Aldaketa honen xedea da Urnietako Udalak eta EGAPE IKASTOLA BHI-k 2022ko abenduaren 7an sinatutako hitzarmenean eranskin bat sartzea, ikastetxe horretan egiten diren sexuen hezkuntza, hezkidetzeta eta tratu onen programa diruz laguntzeko.

Aurrekariak

EGAPE IKASTOLA BHI-ren helburua da, familiekin lankidetzan, ikasleei hezkuntza integrala ematea, bai esparru pertsonalean, bai akademikoan eta sozialean, aldatzen ari den gizarterako eta bizitzarako prestatzeko, neska eta mutil euskaldun, eleanitz, kritiko, parekide, enpatiko, solidario izan daitezen.

Urnietako Udalak 2022ko abenduaren 7an lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuen EGAPE IKASTOLA BHI-rekin (2022SHIT0014), euskara sustatzeko, mendekotasunak prebenitzeko eta bakearekin eta bizikidetzarekin lotutako programak diruz laguntzeko.

EGAPE IKASTOLA BHI-k 2023ko irailaren 18an erregistratu zuen sexuen hezkuntza, hezkidetzeta eta tratu onen programa diruz laguntza- eskaera.

Programaren bidez, prestakuntza eta aholkularitza emango zaie ikastetxeko estamentu guztiei.

Laguntza hori emateko baldintzak ezarri behar dira.

Aurretik azaldutakoak indarrean dagoen hitzarmena aldatzea eskatzen duela.

Zuzenbideko oinarriak

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko EAEko 4/2005 Legearen testu bateginak euskal administrazio publikoei esleitzen die emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko beharrezkoak diren neurri guztiak sustatu eta eraginkortasunez aplikatzea eta zehazki, hezkuntzaren eta hezkidetzaren sustapenaren arloari dagozkionak.

Urnietako Berdintasunerako III. Planak, IV. ardatzean, indarkeria matxistarekin amaitzeko

El objeto de esta modificación es incluir, en el convenio firmado el 7 de diciembre de 2022 entre el Ayuntamiento de Urnieta y el IES EGAPE IKASTOLA, un anexo para financiar el programa de educación de los sexos, coeducación y buenos tratos que se realizan en dicho centro.

Antecedentes

La finalidad del IES EGAPE IKASTOLA es proporcionar al alumnado, en colaboración con las familias, una educación integral, tanto en el ámbito personal como académico y social, con miras a prepararse para vivir en una sociedad y una vida cambiantes, en la que chicas y chicos sean euskaldunes, plurilingües, tengan actitud crítica, paritaria, empática y solidaria.

El Ayuntamiento de Urnieta firmó el 7 de diciembre de 2022 un convenio de colaboración con el IES EGAPE IKASTOLA (2022SHIT0014) para apoyar económicamente programas de fomento del euskara, prevención de dependencias y relacionados con la paz y la convivencia.

El IES EGAPE IKASTOLA registró el 18 de septiembre de 2023 una solicitud de ayuda para financiar el programa de educación de los sexos, coeducación y buenos tratos.

Mediante el programa se impartirá formación y asesoramiento a todos los estamentos del centro educativo.

Para conceder dicha ayuda es necesario establecer las condiciones de la misma.

Lo expuesto previamente requiere la modificación del convenio en vigor.

Fundamentos de derecho

Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres de la CAE atribuye a las administraciones públicas vascas el deber de promover y aplicar de manera efectiva todas las medidas necesarias para la prevención de la violencia machista contra las mujeres, y en particular, las referidas al ámbito de la educación y al fomento de la coeducación.

El III Plan para la Igualdad de Urnieta en su IV. eje de intervención, persigue reforzar y mejorar

ESKUB4aa9f59-ae1e-432e-aa03-4b6d63982d20



Urnietako
udala

Espte zk nº expte:
2023ITGB0012

baliabideak eta estrategiak indartu eta hobetu nahi ditu, partikulariki prebentzioaren, arretaren eta berreskuratze- eta konpontze-prozesuen eremuetan.

Azaroaren 8ko 9/2017 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legearen 6.2 artikulua bere aplikazio eremutik kanpo uzten ditu "sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoekin egindako hitzarmenak, betiere horien helburua ez bada jasotzen Lege honetan edo arau administratibo berezietan araututako kontratuetan".

Horrenbestez, ikusirik 2023ko azaroaren 9ko Herritargoko Batzorde Informatzaileak egindako aldeko irizpena, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez ondorengoa

ERABAKI DU

1. EGAPE IKASTOLA BHI-rekin sinatu beharreko hitzarmen aldaketa proposamena onartzea (II eranskina).
2. Alkate Jaunari baimena ematea hitzarmen horren aldaketa sinatzeko.
3. 3.710 euroko diru-laguntza ematea 1 0440.481.326.00.06.2023 (2765) aurrekontu partidaren kargura, hitzarmenean zehaztutako moduan ordainduko dela adieraziz.
4. EGAPE IKASTOLA BHI-ri erabakia jakinaraztea eta sustapen eta kontu-hartzailetza sailei helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.
- 5- **Hezkidetzako programak txertatzeko SALESTARRAK MAGALEekin sinatutako hitzarmenaren aldaketa onartzea (2022SHIT0016).**

Hitzarmenaren aldaketaren xedea

Aldaketa honen xedea da Urnietako Udalak eta MAGALE-SALESTARRAK ikastetxeak 2022ko abenduaren 22an sinatutako hitzarmenean, eranskin bat sartzea, ikastetxe horretan egiten diren sexuen hezkuntza, hezkidetzeta eta tratuen onen programak diruz laguntzeko.

los recursos y estrategias para acabar con la violencia machista específicamente en los ámbitos de prevención, atención, y los procesos de recuperación y reparación.

El artículo 6.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, excluye del ámbito de aplicación de la misma a "los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales".

Por todo ello, y visto el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Ciudadanía del 9 de noviembre de 2023, la Junta de Gobierno Local ha adoptado por unanimidad el siguiente

ACUERDO

1. Aprobar la propuesta de modificación de convenio a suscribir con el IES EGAPE IKASTOLA (anexo II).
2. Autorizar al Sr. Alcalde para la firma de dicho modificación de convenio.
3. Aprobar la concesión de una subvención de 3.710 euros con cargo a la partida presupuestaria 1 0440.481.326.00.06.2023 (2765), indicando que el pago de la misma se realizará en virtud de lo establecido en el convenio.
4. Notificar este acuerdo al IES EGAPE IKASTOLA y trasladar el mismo a los departamentos de promoción e intervención a los efectos oportunos.
- 5.- **Aprobar la modificación de convenio firmado con SALESTARRAK MAGALE para incorporar los programas de coeducación (2022SHIT0016).**

Objeto del modificación de convenio

El objeto de esta modificación es incluir en el convenio firmado el 22 de diciembre de 2022 entre el Ayuntamiento de Urnieta y el centro educativo MAGALE-SALESTARRAK un anexo para financiar los programas de educación de los sexos, coeducación y buenos tratos que se realizan en dicho centro.

ESKUB4aa9f59-ae1e-432e-aa03-4b6d63982d20



Urnietako
udala

Espte zk n° expte:
2023ITGB0012

Aurrekariak

MAGALE-SALESTARRAK ikastetxeak bere ikasleak 4 hilabetetik lan-munduan sartu arte laguntzen ditu eta derrigorrezko prestakuntzako etapa guztiak eskaintzen ditu, baita Batxilergoa eta Lanbide Heziketako zazpi ziklo ere.

Urnietako Udalak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuela 2022ko abenduaren 22an MAGALE-SALESTARRAK ikastetxearekin (2022SHIT0016), euskara sustatzeko, mendekotasunak prebenitzeko eta bakearekin eta bizikidetzarekin lotutako programak diruz laguntzeko.

MAGALE-SALESTARRAK ikastetxea 2023ko irailaren 20an erregistratu zuen hezkidetzeta, sexuen hezkuntza eta tratu onen programa diruz laguntzeko eskaera.

Programaren bidez, prestakuntza eta aholkularitza emango zaie ikastetxeko estamentu guztiei.

Laguntza hori emateko baldintzak ezarri behar dira.

Aurretik azaldutakoak indarrean dagoen hitzarmena aldatzea eskatzen duela.

Zuzenbideko oinarriak

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik Gabe Bizitzeko EAEko 4/2005 Legearen testu bateginak euskal administrazio publikoei esleitzen die emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko beharrezkoak diren neurri guztiak sustatu eta eraginkortasunez aplikatzea eta zehazki, hezkuntzaren eta hezkidetzaren sustapenaren arloari dagozkionak.

Urnietako Berdintasunerako III. Planak, IV. ardatzean, indarkeria matxistarekin amaitzeko baliabideak eta estrategiak indartu eta hobetu nahi ditu, partikulariki prebentzioaren, arretaren eta berreskuratze- eta konpontze-prozesuen eremuetan.

Azaroaren 8ko 9/2017 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 6.2 artikulua bere aplikazio eremutik kanpo uzten ditu "sektore

Antecedentes

El centro educativo MAGALE-SALESTARRAK acompaña a su alumnado desde los 4 meses hasta su incorporación al mundo laboral, ofreciendo todas las etapas de formación obligatoria, además del Bachillerato y siete ciclos de Formación Profesional.

El ayuntamiento de Urnieta firmó el 22 de diciembre de 2022 un convenio de colaboración con el centro educativo MAGALE-SALESTARRAK (2022SHIT0016) para apoyar económicamente programas de fomento del euskara, prevención de dependencias y relacionados con la paz y la convivencia.

El centro educativo MAGALE-SALESTARRAK registró el 20 de septiembre de 2023 una solicitud para financiar el programa de educación de los sexos, coeducación y buenos tratos.

Mediante el programa se impartirá formación y asesoramiento a todos los estamentos del centro educativo.

Para conceder dicha ayuda es necesario establecer las condiciones de la misma.

Lo expuesto previamente requiere la modificación del convenio en vigor.

Fundamentos de derecho

Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres de la CAE atribuye a las administraciones públicas vascas el deber de promover y aplicar de manera efectiva todas las medidas necesarias para la prevención de la violencia machista contra las mujeres, y en particular, las referidas al ámbito de la educación y al fomento de la coeducación.

El III Plan para la Igualdad de Urnieta, en su IV. eje de intervención, persigue reforzar y mejorar los recursos y estrategias para acabar con la violencia machista específicamente en los ámbitos de prevención, atención, y los procesos de recuperación y reparación.

El artículo 6.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, excluye del ámbito de aplicación de la misma a "los convenios que celebren las entidades del

ESKUB4aa9F59-ae1e-432e-aa03-4b6d63982d20



Urnieta
udala

Espte zk nº expte:
2023ITGB0012

publikoko erakundeek zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoekin egindako hitzarmenak, betiere horien helburua ez bada jasotzen Lege honetan edo arau administratibo berezietan araututako kontratuetan”.

Horrenbestez, ikusirik 2023ko azaroaren 9ko Herritargoko Batzorde Informatzaileak egindako aldeko irizpena, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez ondorengoa

ERABAKI DU

1. MAGALE-SALESTARRAK ikastetxearekin sinatu beharreko hitzarmen aldaketa proposamena onartzea (III eranskina).
2. Alkate jaunari baimena ematea hitzarmen horren aldaketa sinatzeko.
3. 7.405 euroko dirulaguntza ematea 1 0440.481.326.00.04 2023 (2763) aurrekontu partidaren kargura, hitzarmenean zehaztutako moduan ordainduko dela adieraziz.
4. MAGALE-SALESTARRAK ikastetxeari erabakia jakinaraztea eta sustapen eta kontu-hartzailetza sailei helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

6.- Etxeberri auzo elkartearekin sinatutako hitzarmenaren aldaketa onartzea (2021SHIT0003).

Hitzarmen aldaketaren xedea

EPAE - Etxeberri Plazako Auzokideen Elkarteari Udalak prekarioan lokal bat lagatzea eta Elkarteak beraien egungo diru laguntzaren 3.600 €-tatik zati bat karpa baten erosketa finantzatzera bideratu ahal izatea da

Aurrekariak

1. Elkartearen helburua Etxeberri auzoko bizitza dinamizatzea da, horretarako urte guztian zehar hainbat ekintza antolatuz eta planifikatuz

sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales”.

Por todo ello, y visto el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Ciudadanía del 9 de noviembre de 2023, la Junta de Gobierno Local ha adoptado por unanimidad el siguiente

ACUERDO

1. Aprobamos la propuesta de modificación de convenio a suscribir centro educativo MAGALE-SALESTARRAK (anexo III).
2. Autorizar al Sr. Alcalde para la firma de dicho modificación de convenio.
3. Aprobamos la concesión de una subvención de 7.405 euros con cargo a la partida presupuestaria 1 0440.481.326.00.04 2023 (2763), indicando que el pago de la misma se realizará en virtud de lo establecido en el convenio.
4. Notificar este acuerdo a centro educativo MAGALE-SALESTARRAK y trasladar el mismo a los departamentos de promoción e intervención a los efectos oportunos.

6.- Aprobamos la modificación de convenio firmado con Etxeberri auzo elkarte (2021SHIT0003).

Objeto de la modificación convenio

Ceder en precario un local a EPAE - Etxeberri Plazako Auzokideen Elkarte y que la Asociación pueda destinar parte de la subvención actual de 3.600 € a la de financiación de la compra de una carpa.

Antecedentes

1. La finalidad de la Asociación es dinamizar la vida del barrio de Etxeberri mediante la organización y planificación de diversas actividades a lo largo de todo el año.

ESKUB4aa9f59-ae1e-432e-aa03-4b6d63982d20



Urnietako
udala

Espte zk nº expte:
2023ITGB0012

2. Urnietako Udalak lankidetzaz-hitzarmen bat sinatu zuen 2021eko martxoaren 30ean Elkartearekin (2021SHIT0003), 2024ko abenduaren 31ra arteko indarraldiarekin.
3. Urnietako Udalak, hitzarmen horren bidez, 3.600,00 €-ko diru laguntza eman dio 2023an, bere ohiko jarduerak gauzatzeko.
4. Elkarteak 2023ko irailaren 25ean Udalari eskaera bat egin zion (erregistroa: 2023-4163), beraien egungo diru laguntzaren 3.600 €-tatik zati bat karpa baten erosketa finantzatzera bideratu ahal izatea eskatuz.
5. Elkarteak 2023ko urriaren 24an Udalari beste eskaera bat egin zion (erregistroa: 2023-4726), erositako azpiegitura eta berauen jarduna aurrera eramateko beharrezkoak dituzten materialak gordetzeko toki bat eskatuz.

Zuzenbideko oinarriak

1. Kulturak pertsonen garapenean eta osasunean duen garrantziaz oharturik, eta kontuan hartuta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak udalei esleitzen dietela kultura eta kultura-jarduerak antolatzeko eta sustatzeko eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak eta jolas-jarduerak antolatzeko eta kudeatzeko eskumena,, Urnietako Udalak bere gain hartzen du udalerrian egiten diren edo toki-erakundeek antolatzen dituzten mota horretako jarduerak sustatzeko konpromisoa, zehazki, elkarte horrek nahi dituenak.
2. Azaroaren 8ko 9/2017 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuak buruzko Legearen 6.2 artikulua bere aplikazio eremutik kanpo uzten ditu "sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoekin egindako hitzarmenak, betiere horien helburua ez bada jasotzen Lege honetan edo arau administratibo berezietan araututako kontratuetan".

2. El Ayuntamiento de Urnieta firmó el 30 de Marzo de 2021 con la Asociación un convenio de colaboración (2021SHIT0003) con vigencia hasta el 31 de diciembre de 2024.
3. El Ayuntamiento de Urnieta mediante dicho convenio le ha otorgado en 2023 una subvención de 3.600,00 € para el desarrollo de sus actividades ordinarias.
4. Con fecha 25 de septiembre de 2023 la Asociación presentó una solicitud al Ayuntamiento (registro: 2023-4163), en la que solicitaba destinar parte de la subvención actual de 3.600 € a la financiación de la compra de una carpa.
5. Con fecha 24 de octubre de 2023 la Asociación presentó una nueva solicitud al Ayuntamiento (registro: 2023-4726), solicitando un lugar donde guardar la infraestructura adquirida y los materiales necesarios para llevar a cabo su actividad.

Fundamentos de derecho

1. Dada la importancia de la cultura en el desarrollo y en la salud de las personas, y teniendo en cuenta que la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local y la Ley 2/2016 de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, atribuyen a los ayuntamiento la competencia para la ordenación y promoción de la cultura y de actividades culturales y gestión de equipamientos culturales de uso público y la competencia para la ordenación y gestión de actividades recreativas,, el Ayuntamiento de Urnieta asume el compromiso de fomentar las actividades de este tipo que se celebren en el municipio o sean organizadas por las entidades locales y en concreto, las que la mencionada Asociación quiera organizar.
2. El artículo 6.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, excluye del ámbito de aplicación de la misma a "los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales".

ESKUB4aa9f59-ae1e-432e-aa03-4b6d63982d20



Urnieta
udala

Espte zk nº expte:
2023ITGB0012

Alkateak hitza eman die zinegotziei, egoki deritzotena azal dezaten.

EH-BILDU taldeko zinegotziak, Euken Garmendiak, karpa Etxeberri auzoarentzat bakarrik den galdetu du, edo behar zehatzetarako beste norbaitek eska dezakeen. Alkateak erantzun dio hasiera batean Etxeberri auzoarentzat dela.

Euken Garmendiak galdetu du ea lokalik utzi zaien, eta Alkateak baietz erantzun dio, hitzarmenean jasotakoa, alegia, garaje bat Errekalden.

Euken Garmendiak galdetu du ea ez zegoen lokal hurbilagorik, eta alkateak ezetz erantzun dio.

Horrenbestez, ikusirik 2023ko azaroaren 9ko Herritargoko Batzorde Informatzaileak 2023ko azaroaren 9an egindako aldeko irizpena, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez ondorengoa

El Alcalde da la palabra a los concejales para que expongan lo que estimen oportuno.

El concejal del grupo EH-BILDU, Euken Garmendia, pregunta si la carpa es sólo para el barrio de Etxeberri o si puede solicitarla alguien más para necesidades puntuales, a lo que el Alcalde le responde que en principio es para el barrio de Etxeberri.

Pregunta Euken Garmendia si se les ha dejado algún local, a lo que el Alcalde le responde que sí, el que está recogido en el convenio, un garaje en Errekalde.

Euken Garmendia pregunta si no había un local más cercano, a lo que el Alcalde le responde que no.

Por todo ello, y visto el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Ciudadanía del 9 de noviembre de 2023, la Junta de Gobierno Local ha adoptado por unanimidad el siguiente

ERABAKI DU

1. EPAE - ETXEBERRI PLAZAKO AUZOKIDEEN ELKARTEAren adostu beharreko hitzarmen aldaketa proposamena onartzea (eranskina I eta II).
2. Alkate jaunari baimena ematea hitzarmen aldaketa hori sinatzeko.
3. Errekalde Kalea 12, -2, 32 lokala prekarioan lagatzea onartzea, proposamenean adierazitako baldintzetan.
4. 2023 ekitaldian, hitzarmenean adierazitako 3.600 €-etatik 1.500 € hitzarmenean zehaztutako jardueretara bideratzea onartzea, zeinak 1 0410.481.334.00.19 aurrekontu partidarekin finantzatzeko diren
5. Gainerako 2.100 €-ak karpa bat erostera bideratzea onartzea 1 0410.781.334.00.19 aurrekontu partidarekin finantzatzuz.
6. EPAE - ETXEBERRI PLAZAKO AUZOKIDEEN ELKARTEAri erabakia jakinaraztea eta sustapen eta kontu-hartzaitza sailei helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

7.- Antia 2024 literatur lehiaketaren oinarriak

ACUERDO

1. Aprobar la propuesta de cambio de convenio a suscribir con EPAE - ETXEBERRI PLAZAKO AUZOKIDEEN ELKARTEA (anexo I y II).
2. Autorizar al Sr. Alcalde para la firma de dicho cambio de convenio.
3. Aprobar la cesión en precario del local Errekalde Kalea 12, -2, 32 en las condiciones indicadas en la propuesta.
4. Aprobar que, en el ejercicio 2023, de los 3.600 € mencionados en el convenio 1.500 € se destinen a las actividades definidas en el convenio, financiándolas desde la partida presupuestaria 1 0410.481.334.00.19.
5. Aprobar que los restantes 2.100 € se destinen a la compra de una carpa, financiándola desde la partida presupuestaria 1 0410.781.334.00.19.
6. Notificar este acuerdo a EPAE - ETXEBERRI PLAZAKO AUZOKIDEEN ELKARTEA y trasladar el mismo a los departamentos de promoción e intervención a los efectos oportunos.

7.- Aprobar las bases del concurso literario

ESKUB4aa9f59-ae1e-432e-aa03-4b6d63982d20



Urnieta
udala

Espte zk nº expte:
2023ITGB0012

onartzea (2023SORO0028).

Urnietako Udalak 1995ean antolatu zuen lehen aldiz On Manuel Antonio Antia literatur lehiaketa, eta 2024an lehiaketa bere XXX. ediziora iritsiko da.

2012an ez zen helduen kategoriako lehiaketarik antolatu, eta aurrerantzean kategoría horretako lehiaketa bi urtean behineko maiztasunez antolatzea erabaki zen.

Araudi aplikagarria

Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 legearen 17. Artikuluko 1.20 puntuaren arabera, Kultura eta kultura jarduerak antolatzea eta sustatzea Urnietako Udalaren eskumena da.

Diru laguntzei buruzkoa den azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorrak, hamargarren xedapen gehigarrian, hezkuntza-, kultura-, zientzia- edo beste edozein motatako sariak arautzen ditu.

Alkateak hitza eman die zinegotziei, egoki deritzotena azal dezaten.

Euken Garmendia EH-BILDU taldeko zinegotziak azaldu duenez, sarietan bonuak ematea adostuta zegoen eta beraiek bonu horiek herrian gastatzea planteatu zuten.

Ana Pozas EAJ-PNV taldeko zinegotziak dio ahal duten guztia egingo dutela bonu horiek herrian erabil daitezzen, baina Alkateak zehaztu du gaur egun Urnietako merkataritzan dauden aukerak mugatuak direla eta etorkizunean egoera hori hobetzen saiatuko direla.

Horrenbestez, ikusirik 2023ko azaroaren 9ko Herritargoko Batzorde Informatzaileak egindako aldeko irizpena, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez ondorengoa

ERABAKI DU

Antia 2024 (2023SORO0028).

El Ayuntamiento de Urnieta organizó el certamen literario On Manuel Antonio Antia por primera vez en 1995, llegando a su edición XXX en 2024.

En 2012 el Ayuntamiento no organizó el concurso en la categoría de personas adultas, y decidió que en adelante se organizara el concurso en dicha categoría con una periodicidad bianual.

Normativa aplicable

La ley 2/2016 de 7 de abril, de instituciones locales de Euskadi en su artículo 17 punto 1.20, atribuye al Ayuntamiento de Urnieta la ordenación y promoción de la cultura y de actividades culturales.

La ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones en su disposición adicional décima, regula los premios educativos, culturales, científicos o de cualquier otra naturaleza.

El Alcalde da la palabra a los concejales para que expongan lo que estimen oportuno.

El concejal del grupo EH-BILDU, Euken Garmendia, expone que estaba acordado que en los premios se dieran bonos y que ellos plantearon que esos bonos se gastaran en el pueblo.

La concejal del grupo EAJ-PNV, Ana Pozas, dice que harán todo lo posible para que esos bonos se utilicen en el pueblo, aunque el Alcalde puntualiza que lamentablemente las opciones que a día de hoy existen en el comercio de Urnieta son limitadas y que a futuro se tratará de mejorar esta situación.

Por todo ello, y visto el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Ciudadanía del 9 de noviembre de 2023, la Junta de Gobierno Local ha adoptado por unanimidad el siguiente

ACUERDO

ESKUB4aa9f59-ae1e-432e-aa03-4b6d63982d20



Urnieta
udala

Espte zk n° expte:
2023ITGB0012

Lehena.- Urnieta 2024. urteko XXX. On Manuel Antonio Antia literatur lehiaketaren oinarriak onartzea.

Bigarrena.- Lehiaketako sariak aurrekontu partida hauen kargura ordaintzea:

Haurren kategoria 1 0440.220.335.00.01 (667)

Gazteen kategoria 1 0440.481.335.00.04 (540)

Hirugarrena.- Aipatu oinarriak udalaren webgunean argitaratzea eta berauei ahalik eta zabalkunderik handiena ematea.

Erabakiaren jakinarazpenak

Web orria

Sustapen saila

Kontu-hartzaitza saila

8.- Aisialdiko begiraleentzako diru laguntzak onartzea. (2023SOKO0008)

Primero.- Aprobare las bases de la XXX edición del certamen literario On Manuel Antonio Antia de Urnieta del año 2024.

Segundo.- Abonar los premios del certamen con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

Categoría infantil 1 0440.220.335.00.01 (667)

Categoría juvenil 1 0440.481.335.00.04 (540)

Tercero.- Publicar las citadas bases en la web del Ayuntamiento, así como darles la mayor difusión posible.

Notificación de la resolución

Página web

Departamento de Promoción

Departamento de Intervención

8.- Aprobare las subvenciones a monitoras/es de tiempo libre (2023SOKO0008).

Horrenbestez, ikusirik 2023ko azaroaren 9ko Herritargoko Batzorde Informatzaileak egindako aldeko irizpena, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez ondorengoa

Por todo ello, y visto el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Ciudadanía del 9 de noviembre de 2023, la Junta de Gobierno Local ha adoptado por unanimidad el siguiente

ERABAKI DU

ACUERDO

1. 2023 ekitaldirako Urnieta udalerrian kultura, euskara, hezkuntza, kirol, haurreria, gazteria eta aisialdiko jarduerak finantzatzeko diru laguntzak arautzen dituen arategiaren (GAOn argitaratutako data: 2023ko apirilaren 18a) IV. eranskinean zehazten diren aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa euskaraz egin duten eta Urnietan errolatuta daudenek ordaindutako matrikulak finantzatzeko diru laguntzak jarraian aipatzen diren eskatzaileei eta jarraian zehazten diren kopuruarekin ematea:

1. Conceder, a las personas solicitantes que se indican a continuación y por los importes que se detallan, subvenciones para la financiación de matrículas de las personas empadronadas en Urnieta que hayan realizado cursos de monitor/a o director/a de tiempo libre en euskera, las cuales se detallan en el Anexo IV de la normativa reguladora de las subvenciones para la financiación de actividades relacionadas con la cultura, el ocio, el deporte, la infancia y la juventud en el municipio de Urnieta (BOG de 18 de abril de 2023):

Espediente kodea	NA zenbakia	Izen-abizenak	Matrikula	Dirulaguntza
2023SDES0064	72557431K	Exposito Ibarbia Irati	450,00 €	225,00 €
2023SDES0045	73038259B	Igiñitz Mutuberria Arene	450,00 €	225,00 €
2023SDES0046	72606316P	Kortajarena Garcia Maialen	450,00 €	225,00 €
GUZTIRA				675,00 €

ESKUB4aa9f59-ae1e-432e-aa03-4b6d63982d20



Urnieta
udala

Espte zk nº expte:
2023ITGB0012

2. Diru laguntza ez ematea jarraian adierazten den eskatzaileari, zehazten den arrazoiarengatik:

2. No conceder autorización a la siguiente solicitante, por el motivo citado:

Espediente kodea	NA zenbakia	Izen-abizenak	Arrazoa / Motivo
2023SDES0067	72600201B	Martínez Fonseca Saioa	Ikastaroa 2021-2022 ikasturtean egin du, eta diruz lagungarriak 2022-2023 ikasturtekoak dira. <i>Curso realizado en 2021-2022, mientras que los subvencionables son los del curso 2022-2023.</i>
			3. Onuradun bakoitzari dagokion diru laguntzaren % 100 ordainketa bakarrean ordaintzea.
			3. Abonar a cada persona beneficiaria el 100% de la subvención correspondiente en un único pago.
			4. Erabaki honen berri Sustapen, Idazkaritza eta Kontuhartzaitza sailetara igortzea, dagozkion eraginetarako.
			4. Remitir el presente Acuerdo a los Departamentos de Promoción, Secretaría e Intervención a los efectos oportunos.
			5. Ebazpena udaletxeko iragarki taulan eta webgunean argitaratzea.
			5. Publicar la Resolución en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento.
			9.-Urnietako udal hilerriko lurperatze, mantentze, garbiketa eta lorezaintza zerbitzu orokorraren kontratazioaren esleipena (2023ZZER0008)
			9.-Adjudicación del servicio general de enterramiento, mantenimiento, limpieza y jardinería del cementerio municipal de Urnieta (2023ZZER0008)

Aurrekariak:

1.- Osoko Bilkurak 2023ko maiatzaren 23an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez, aipatutako kontratu hau arautuko duten administrazio-klausula partikularren eta teknikoen agiriak onartu ziren.

2.- 2023ko uztailaren 4ean, Kontratazio Mahaia deitu zen dokumentazio administratiboa zuten artxibo elektronikoak irekitzeko (1. zk.) eta, hala bazegokion, balio-judizio baten mendeko irizpideak zituzten artxibo elektronikoak irekitzeko (2. zk.).

3.- Hurrengo enpresak aurkeztu ziren:

HARGOI S.L. (B-75050963)
LANDARRI S.L. (B-20531448)

4.- Dokumentazioa aztertuta, mahaiak egokitzat jo zuen HARGOI S.L. (B-75050963) enpresak

Antecedentes:

1.- Mediante acuerdo adoptado por Pleno de la Corporación en sesión celebrada con fecha 23 de mayo de 2023, se aprobaron los pliegos de cláusulas administrativas particulares y técnicas que rigen el contrato de referencia.

2.- Con fecha 4 de julio de 2023 se convocó Mesa de Contratación para la apertura de los archivos electrónicos que contienen la documentación administrativa (nº 1) y, en su caso, para la apertura de los archivos electrónicos que contienen los criterios dependientes de un juicio de valor (nº 2).

3.- Se presentaron las siguientes empresas:

HARGOI S.L. (B-75050963)
LANDARRI S.L. (B-20531448)

4.- Analizada la documentación, la mesa consideró correcta la documentación presentada

ESKUB4aa9f59-ae1e-432e-aa03-4b6d63982d20



aurkeztutako dokumentazioa. Era berean, LANDARRI S.L.k (B-20531448) aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak antzeman zituen.

5.- Ondorioz, bertan behera utzi zen 2. Artxibo Elektronikoaren irekiera, balio-judizio baten arabera kuantifikatu beharreko irizpideak jasotzen zituena.

6.- Antzemandako akatsak zuzentzeko emandako epearen barruan, LANDARRI SL-k (B-20531448) behar bezala aurkeztu zuen eskatutako dokumentazioa.

7.- 2023ko abuztuaren 4ko Kontratazio Mahaian, mahaiak erabaki zuen dokumentazioa LANDARRI SLk aurkeztu zuela. (B-20531448) zuzena zen. Beraz, jarraian, 2. artxibo elektronikoa ireki zen, balio-judizio baten mendeko irizpideak jasotzen dituen. Proposamenak irakurri ondoren, ez zen akatsik ikusi, eta Zerbitzu Teknikoei bidali zitzaizkien, Pleguetan ezarritako irizpideen eta haztaperaren arabera balora zitzaten.

8.- Zerbitzu-teknikariaren txostena eman ondoren, 2023ko abuztuaren 31n Kontratazio Mahaia deitu zen balio-judizio baten mende dauden irizpideak baloratzeko eta, ondoren, eskaintza ekonomikoa jasotzen duen 3. artxibo elektronikoa jendaurrean irekitzeko.

9.- Eraitza hurrengoa izan zen:

PUNUAZIOAK GUZTIRA

LANDARRI, S.L.U.	PUNUAZIOA
Balio judizio bidez baloratu beharreko irizpideak.	21 puntu
Formulak aplikatuz baloratu beharreko irizpideak.	37,88 puntu
GUZTIRA	58,88 puntu
HARGOI SL	PUNUAZIOA
Balio judizio bidez baloratu beharreko irizpideak.	26 puntu

por HARGOI S.L. (B-75050963). Asimismo, detectó defectos subsanables en la documentación presentada por LANDARRI S.L. (B-20531448)

5.- En consecuencia, se suspendió la apertura del Archivo Electrónico 2, que contiene los criterios cuya cuantificación depende de un juicio de valor.

6.- Dentro del plazo otorgado para subsanar los defectos detectados, LANDARRI S.L. (B-20531448) presentó la documentación requerida.

7.- En la Mesa de Contratación celebrada el 4 de agosto de 2023 la mesa consideró que la documentación presentara por LANDARRI S.L. (B-20531448) era correcta. Por tanto, seguidamente se procedió a la apertura del archivo electrónico 2, que contiene los criterios dependientes de un juicio de valor. Tras la lectura de las proposiciones, no observándose ningún defecto, se remitieron las mismas a los Servicios Técnicos para su valoración con arreglo a los criterios y a la ponderación establecida en los Pliegos.

8.- Tras la emisión del informe del Técnico de Servicios, con fecha de 31 de agosto de 2023 se convocó Mesa de Contratación para la valoración de los criterios que dependen de un juicio de valor y posteriormente la apertura pública del archivo electrónico 3, que contiene la oferta económica.

9.- El resultado fue el siguiente:

TOTAL PUNUAZIOAK

LANDARRI, S.L.U.	PUNUAZIOA
Criterios a valorar mediante juicio de valor.	21 puntos
Criterios a valorar mediante la aplicación de fórmulas.	37,88 puntos
TOTAL	58,88 puntos
HARGOI SL	PUNUAZIOA
Criterios a valorar mediante juicio de valor.	26 puntos

ESKUB4aa9f59-ae1e-432e-aa03-4b6d63982d20



Formulak aplikatuz baloratu beharreko irizpideak.	70 puntu
GUZTIRA	96 puntu

Criteria a valorar mediante la aplicación de fórmulas.	70 puntos
TOTAL	96 puntos

10.- Hori dela eta, lehenengo sailkatuari (HARGOI S.L.) SPKLren 150.2 artikuluan aipatzen den dokumentazioa aurkezteko eskatu zitzaion. Horretarako 10 eguneko epea eman zitzaion.

10.- Por ello, se acordó requerir a la primera clasificada (HARGOI S.L.) la documentación justificativa a la que hace referencia el artículo 150.2 de la LCSP en el plazo de 10 días.

11.- Horretarako emandako epean, HARGOI S.L. enpresak eskatutako dokumentazioa aurkeztu du.

11.- En el plazo otorgado al efecto, HARGOI S.L. ha presentado la documentación requerida.

Araudi aplikagarria

Normativa aplicable

- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 63., 99-102., 116-117., 122., 124., 131-159. artikulua eta 2., 3. eta 15. xedapen gehigarriak. Lege horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

- Artículos 63, 99-102 , 116-117 , 122 , 124 , 131-159 y Disposiciones Adicionales 2ª-3ª y 15ª de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.

- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.

- Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.

- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena. (Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua indarrean jarri ondoren indarrean dauden artikulua).

- Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas. (Artículos vigentes tras la entrada en vigor del Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo).

Aurreko guztia ikusita, espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzeari jarraitu diola jotzen da.

Visto cuanto antecede, se considera que el expediente ha seguido la tramitación establecida en la legislación aplicable.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren arabera (lege horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), Osoko Bilkurari dagozkio kontratazio-organo gisa dagozkion eskumenak obra, hornidura eta zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta toki-erakundeak egiten dituen administrazio-kontratu bereziak, haien balioa edo iraupena dela-eta toki-erakundealkateari edo presidenteari ez badagozkio,

De conformidad con la Disposición Adicional Segunda de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, corresponden al Pleno las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos de obras, de suministro, de servicios, los contratos de concesión de obras, los contratos de concesión de servicios y los contratos administrativos especiales que celebre la Entidad Local, cuando por su valor o duración no correspondan al Alcalde o Presidente de la



Urnietako
udala

Espte zk nº expte:
2023ITGB0012

xedapen honen 1. apartatuaren arabera. Halaber, osoko bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onartzea.

Osoko Bilkurak, 2023ko urriaren 26an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarraren esku uztea, kontratuei buruzko legeriaren arabera, osoko bilkuraren eskumeneko kontratuei dagokienez, legeria horrek kontratazio-organoari esleitzen dizkion ahalmenak, kontratuzapenak onartzea barne, hargatik eragotzi gabe Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 47.2 artikuluan xedatutakoa.

Eskuordetze horretatik salbuetsita daude espedienteak onartzea eta onarpen horri dagokion gastua baimentzea.

Horrenbestez, ikusirik 2023ko azaroaren 9ko Herritargoko Batzorde Informatzaileak egindako aldeko irizpena, Tokiko Gobernu Batzordeak gehiengo absolutuz, EH-BILDU taldeko abstentzioarekin, ondorengoa

ERABAKI DU

1. "Urnietako udal hilerriko lurperatze, mantentze, garbiketa eta lorezaintza zerbitzu orokorra" HARGOI SL (B-75050963) enpresari esleitzea, bere eskaintzan eta administrazio-klausula partikularren eta preskripzio teknikoaren pleguetan zehaztutako baldintzetan, jarraian zehazten den zenbatekoetan:
Eskaintza ekonomikoa 18.600 € gehi BEZari dagokion 3.906,00€.
2. Aipatutako esleipendunak aurkeztutako eskaintza hautatzeko ezaugarri eta abantaila erabakigarriak dira Zerbitzuetako teknikariaren 2023ko abuztuaren 14ko txostenean adierazitakoak eta egindako proposamen ekonomikoa.
3. 22.506,00€ko gastua baimentzea, hurrengo aurrekontuaren partiden kargura, 2023ko ekitaldikoak.
1 0300.227.164.00.99 2023 (1826)
4. Mikel Iraola, Zerbitzu Teknikaria, kontratuaren arduradun izendatzea.

Entidad Local conforme al apartado 1 de esta disposición. Asimismo, corresponde al Pleno la aprobación de los pliegos de cláusulas administrativas generales a los que se refiere el artículo 121 de esta Ley.

Mediante acuerdo adoptado por el Pleno en sesión ordinaria celebrada el 26 de octubre de 2023, se acordó la delegación en la Junta de Gobierno Local del ejercicio, respecto de los contratos de competencia del Pleno, según la legislación en materia de contratos, de las facultades que dicha legislación atribuye al órgano de contratación, incluida la aprobación de las prórrogas contractuales, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 47.2 de la Ley reguladora de las Bases de Régimen Local.

Se exceptúan de esta delegación la aprobación de los expedientes y la autorización del gasto relativa a dicha aprobación.

